



Bidador González, Joxemiel

(Iruñea, 1970-2010)

Gazte zendu zen Joxemiel Bidador eta oraindik ere sakona da utzitako hut-sunea. Hil zenean eta ahalkerarekin jolastuz erantzun gabeko galdera bat errepikatzen zuen batek baino gehiagok: luze bizi izan balitz, zein izango ote zen Joxemielen produkzioa? Gure Jimeno Jurio txikia izan zitekeela zioten beste batzuk, 2007an Euskalerrria irratiko lagunek *Larreko* saria eman ziotenean.

60

Idazle oparoa, ikerlari nekaezina, dibulgatzaile xaloa, zubigile porrokatua, lagun zintzoa eta euskara eta euskal kulturaren defendatzaile sutua izan zen, besteak beste, Joxemiel.

Arrotxapeako auzoan sortu zen, familia langilea eta erdaldun baten baitan. Bi alaben aita eta hiru anaietatik zaharrena zen. Oinarrizko ikasketak Kaputxinoek Iruñean, Altsasun eta Tuteran zituzten ikastetxeetan egin zituen. Ondoren, eta gaztaroan euskaldunduta, EHUK Gasteizen duen fakultatean Euskal Filologian lizentzia erdietsi zuen.

Hasierako ikerketak euskara eta toponimiaren inguruan egin zituen. Jarraian, eta artxiboak arakatzearen ondorioz, folklore, Nafarroako historia eta literatura uztarturik askotan, hainbat artikulu kaleratuko zituen aldizkari espezializatuetan (*Jakin*, *Egan*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Fontes Linguae Vasconum*,...). -*Principe de Viana* aldizkariaren 2016ko 264 zenbakian, Bidadorri eskainitako monografikoan, historiarekin zerikusia duen artikulu antologia eta bere obraren bibliografia osatua jasotzen dira.-

Maisuki uztartu zituen ikerketa zorrotza eta zabalkundea. Laurehun kolaborazio baino gehiago plazaratu zituen *Diario de Noticias* eta *Euskaldunon Egunkaria* kazetetan, astez aste bidalitako artikuluetan. Aritz Galarragak berriki bildu ditu artikulu hauetako batzuk, *Klasiko Bitxi arront klasiko* (Bidador, 2016, Pamiela) liburu mardulean.

Dantzaren erreforma Euskal Herrian liburuan bere zaletasun nagusiak elkartu zituen: dantza, literatura, euskara. 2005eko Miguel de Unamuno VI saiakera

saria izan zen lan horrekin, aurkeztu gabeko doktore tesiari amaiera eman zion.

Ordurako publikatuak zituen beste monografia batzuk, esaterako, *Sakanako euskal idazleen antologia* (I) (2000, GN-Bierrik) eta *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* (2004, Pamiela). Obra horiekin nafar literatura aztertzeo gakoak eta aski datuak ematen zituen, agerian uzten zutenak Nafarroan baziren eta badirela euskal idazleak. Garai hartako Nafarroako agintarierei erantzun irmoa eman nahi zien, ez zezatela aitzakiarik izan euskal idazleak zokoratzeko. Honen harira, *Euskaraz idaztea Nafarroan* (Joxemiel Bidador in memoriam) izenburupean, TK 22 zenbakian, Nafarroako zenbait idazleak euskal letren egoerari buruz idatzi zuten.

Baina Joxemiel Bidador ere poeta bazen. Poesiaren harra barnean zuen txikitatik. Gazte garaian Juan Ramón Jimenezen *Barne-gaiazko animalia* obra euskaratu zuen (2016, armiarma.eus) eta Iruñeko Udalak antolatutako egile berrientzako literatur lehiaketetan zenbait sari irabazi zituen aurreko mendeko 90eko hamarkadan. Aldiz, 2010 urterarte ez zen ezagutu bere poesiarako dohaina, *hutseaniko hazkurria* hil ondoko poemategia publikatu zen arte. Jose Angel Irigarai adiskide eta editorearen esanetan testuan ni poetiko indartsua eta interesgarria nabari da. Kritikoa eta ironikoa azaltzen da gizartearekin eta bere buruarekin, poesigintzaren inguruan ere hausnarketa plazaratzen du eta bere barne munduko poz eta

minak agertzen ditu, modu jostarian eta askean, *arauari ez nakion zor*. Liburuak aipaturiko bi lan saridunekin osatzen da, *Andrea eta desgizonaren gauzatzea* eta *Garañoko gatazkaren bart bezperan egin besta isila*.

Liburuaren aurkezpen publikoa, berriaz, urtebete beranduago egin zen, Iruñeko Planetarioan. Familia eta lagunen arteko ospakizuna izan zen. Joxemielen poemak errezitatu ziren, musika, argazkiak eta marrazkiak lagundurik. Ekitaldi hunkigarria bezain ederrean, poesiarako zeukan sentikortasuna agerian geratu zen.

LUZIAREN OSTATUA

Aspaldiko partez

Bezerorik gabe...

Gaur ene buruarendako bakarrik

Sukaldatuko dut

Presarik gabe, bake ederrean,

Nonbait gorderik daukadan ardo txuri hori

Urrupa motzean dastatuz

Izarrei begira nagoeno

Basoaren urrinak arnastuz

Gauaren mintzoari adi

Gaur ez diot inori ere

Korrika egindako bidaiaren berri

Entzun beharko

Aspaldiko partez

Bezerorik gabe

Aukera izanen dut

Ametsetan murgiltzeko

Goxo, alderrai

Helbururik gabe

Helmugarik gabe

“Luziaren ostatua” hil aurretik hasi berria zuen sormen lan baten hasiera da (noski, eta tamalez, segidarik ez duena).